

## BAKE EPAILEA ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO OINARRIAK

EAEko Auzitegi Nagusiak, 2024ko martxoaren 27an bialdutako idaztiari jarraiki eta Botere Judizialeko Lege Organikoko 101. artikulua eta hurrengoek xedatzen dabena kontutan hartuta, Bake Epailera eta ordezkia izendatzeko deialdia zabaldu beharra dago.

Horretarako, honako oinarriak onartu dira:

### 1.- Eskaria egiteko modua eta epea:

Eskaria Bermeoko Udalari zuzenduko joko eta [Udalaren egoitza elektronikoa](#), Erregistro Orokorrean (Berhaz bulegoan), edo 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako bideak erabilita aurkeztu beharko da, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean.

Interesdunek, egoki ikusten dabean dokumentuak aurkeztuko dabenez, euren asmoa oinarritu ahal izateko eta, bestalde, derrigorrez aurkeztu beharko dabe, kargua bete ahal izateko, ezgaitasuneko inolako kasutan ez egotearen zinpeko aitortzea.

### 2.- Karguak eskatzen dauzan baldintzak:

Ez da beharrezkoa Zuzenbide Lizentziaduna izatea, baina hala ere, karrera judizialean sartzeko gainontzeko baldintzak bete beharko dira (6/1985 Lege Organikoaren 102. artikulua xedatzen dauzanak), hau da:

- Atzerritarra ez izatea.
- Adinez nagusia izatea.
- Kargurako ezgaitasun kausaren batetan ez egotea, eta hauek dira:
  - a) Epailera-funtzionarioak eragozpen fisiko edo psikikoak eukitzea.
  - b) Doluzko delituen batengaitik kondenatua egotea, birgaitu arte.



- c) Doluzko delituren batengaitik, auziperatua edo erruduntzat joa izatea, absolbitua izan arte edo prozesua artxibatu arte.
  - d) Eskubide zibilen gozapen osoa ez eukitzea.
- Ez da eragozpenik izango jubilatua egotea.
  - Alderdi politiko edo sindikatuetakoa kide ez izatea, edo horien zerbitzupeko enplegurik ez izatea.

Era berean, euskeraz jakitea nahitaezko baldintza izango da, eta Alkatetzak finkatuko dauan eran kreditatuko da.

### 3.- Karguaren izaera:

Proposatutako hautagaiak, bere kasuan, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiko Gobernuako Salak izendatuko dauz eta, aurretik, Lehen Auzialdiko Epailearen aurrean zin egin beharko dabe. Jabetza, kargua izten dauan Bake Epailearen aurrean hartuko dabe, kasua bada.

Karguak lau urte irauten dau, eta berriztatu daike. Funtzino jurisdikzionalak betetzen dauz, eta aldi baterako mugiezintasuna dau. Egoitza, Bermeoko Udalerrian izan beharko dau, zenbait kasutan izan ezik.

Legearen arabera jagokozan eskumenen baitan, arlo zibileko eta penaleko prozesuetan izango dau ahalmena. Erregistro Zibileko eta abarreko funtzinoak ere beteko dauz.

Kargua, legean ezarrita dagoen sistema eta kopuruaren arabera ordaintzen da.

Agintaldia irauten dauan bitartean, Bake Epailea, Bateriaezintasun Erregimenaren menpe egongo da, 6/1985 Lege Organikoak arautzen dauenaren arabera.

Hala ere, irakaskuntza edo ikerketara dedikatzeko bateragarritasuna izango dau, eta baita ere, aholkularitza juridikoa eskatzen ez dauan jarduera



profesionalak edo merkataritzakoak burutzeko, beti ere, ez badeutsoe bere inpartzialtasun eta independentziari kalterik egiten.

#### 4.- Hautatze prozesua:

Behin eskariak aurkezteko epea amaituta, Udaleko Idazkaritzak, egondako eskariak, euren eranskinekaz, Alkatetzara bideratuko dauz eta, Alkatetzak, Bake Epailea izendatzeko proposamena egingo dau.

Eskatutako baldintzak beteten dabezan hautagai bat baino gehiago egotekotan, proposamen hori honako merezimenduen arabera egingo da:

- Zuzenbide Lizentziatura, Gradua edo baliokidea eukitea: puntu 1.
- Bake Epaile legezko lan esperientzia, era egokian kreditatzeagaitik: 0,5 puntu urte bakotxeko, 10 puntura arte.

Bardinketa kasurik balego, Zuzendibe Lizentziatura, Gradua edo baliokidea daukanari emongo jako lehentasuna eta, halan da be, bardinketa mantenduko balitz, zozketaz ebatziko da.

#### 5.- Kargu-hartzea:

Epaile eta ordezeko kargurako proposatutako hautagaiak, beti ere halan izendatua izaten badira, ahalik eta arinen, kargua onartzeko idaztia aurkeztuko dabe eta, horregaz batera, kargua beteteko bateraezintasun kausaren betetan aurkitzen ez diranaren zinpeko aitortpena aurkeztuko dabe.

Behin-betiko izendapen erabagia Osoko Bilkurak onartuko dau, gehiengo osoz.

Eskatzailerik egongo ez balitz, Osoko Bilkurak askatasun osoz aukeratu ahal izango dauz Bake Epaile eta ordezeko barriak.

Behin egokia dan erabagia hartuta, Osoko Bilkuraren erabagiaren ziurtagiria, gainontzeko dokumentazioagaz batera, Lehen Auzialdiko eta Instrukzinoko Epaileari igorriko jako.

